



Espediente moetea: Administrazio kontratazinoa

Kontratua: Hornidura kontratua, prozedura negoziatua. UDALTZAINGOAREN IBILGAILUA RENTING BIDEZ KONTRATATZEA.

Espediente zenbakia: 2009-56

UDALTZAINGOAREN IBILGAILUA RENTING BIDEZ
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZINO-BALDINTZA TEKNIKOEN
ORRIAK
PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO ESLEIPENA

- 1.- Kontratuaren helburu eta funtzioak
- 2.- Ibilgailuaren ezaugarriak.
- 3.- Alokatzearen baldintzak.
- 4.- Kontratuaren iraupena.
- 5.- Lizitazioko oinarrizko aurrekontua.
- 6.- Kontratuaren exekuzio epea.
- 7.- Entregatzeko tokia eta epea.
- 8.- Prezioen berrazterketa.
- 9.- Ordainketak.
- 10.- Proposamenen azalpenak.
- 11.- Aurkeztu beharreko agiri teknikoak.
- 12.- Esleipen irizpideak.

Bermeon, 2009ko ekainaren 26an

1.-KONTRATUAREN HELBURUA ETA FUNTZIOAK

1.1.- HELBURUA: Eskaintzen den kontratuaren helburua da, Udaltzaingoak ibilgailu polizial modura erabiltzeko, renting kontratu bat sinatzea. Hornidura sistema honek suposatzen dau, ibilgailuaren jabetza eta horregaz batera mantenimendu integralaren lanak, konponketa lanak eta gurpil aldaketa lanak suposatzen dauzan gastu guztiak, kontratistaren kontura izango dirala, ibilgailua denbora guztian erabiltzeko egoeran mantentzeko helburuagaz.

1.2.-FUNTZIOAK:

Kontratuaren funtzioa, berrogeita zortzi (48) hilabeteetan zehar ibilgailu bat hornitzea Udaltzaingoa zerbitzuak erabiltzeko. 240.000 km kontratatuko dira. Ibilgailuaren mantenimendu osoa eta matxurak konpontzeko lanak, gurpil aldaketa-konponketak barne, kontratistak aukeratutako Bermeoko lurraldean kokatzen dan tailerren batetan bideratu beharko dira derrigorrez.

Ibilgailuaren aseguruak arrisku guztietarako motakoa izango da, kontratua irauten dauan epe osoan, beti ere kontutan izanda ibilgailuari emongo jako erabilera.

2.-IBILGAILUAREN EZAUGARRIAK:

2.1.-MARKA ETA MODELUA: TURISMO motako FORD C-MAX ibilgailua eskatzen da.

2.2.-MARGOA: Ibilgailuak identitate diseinua izango dau, margoa eta itsasgarriekaz osatuta. Oinarrizko margoa ZURIA da eta itsasgarrien diseinuak Udaltzaingoak hornituko dauz. Edozein kasutan, esleipendunak baimendu egingo dau itsasgarri horrek jartzea.

2.3.-IBILGAILUAREN EZAUGARRIAK:

Lehiaketa honetara aurkezten dan dokumentazioagaz batera, eskaintzen dan ibilgailuaren ezaugarri guztiak azalduko dira.

Gitxienez, ondoren azaltzen diran ezaugarriak azaldu beharko dabe eskaintzen dan modeluagaz, hemen azaldukoak bete beharko dauzana nahitaez.

Motorra:

Mota	Diesel
Motorra	4 aldikoa.
Zilindro zbk.	Lau
Zilindrada	1500 CC baino handiagoa.
Kanbioko kutxa	eskuzkoa, 5 abiadura eta atzerako martxa.
Erregai gordailua	50 litro baino gehiago.
Direkzioa	lagunduriko direkzioa aldakorra, abiaduraren arabera.
Bateria	70 Amperiokoa gitxienez.
Gitxieneko Potentzia(CV)	100 CV edo gehiagokoa.
Kontsumoak	Hornitzaileak zehazteko.

2.4.-KARROZERIA ETA EKIPAMENDUA:

- a) Aurre aldeko eserlekuak ez labaingarriak izango dira, suaren aurkako tapizatuagaz eta higaduraz hauskaitza, luzetara erregulagarria, baita bizkarraldearen inklinazioan erregulagarria eta buru-euskarria ere izango dau. Gidariaren eserlekua altueran erregulagarria izango da.
- b) Gomazko alfonbrak ibilgailuaren aurre aldean eta mapak irakurtzekoa ibilgailuaren estalpean.
- c) Erregaiaren gordailuko tapoia giltzagaz edota barru aldetik irekitzeko sistema izango dau.
- d) A.B.S.
- e) Egonkortasun kontrola
- f) Trakzio kontrola
- g) Airbag aurrean, alboetan eta estalpean (kortina) gidariarentzat eta bere aurreko albokorentzat.
- h) Klimatizadorea
- i) Itxidura zentralizatua hurruneke kontrolagaz.
- j) Kristal jasogailua aurreko leihoetan.
- k) Bolantea altueran eta sakoneran erregulagarria.
- l) Odómetroa.
- m) Argindarreko toma bat atzealdeko eserlekuetako gunetik.
- n) Kristalak tintatuak izango dira, eta atzealdeko ateetako kristalak eta ate andiarena ere, film babeslea eroango dabe, homologatua eta ziurtatuta I.T.V ak gainditzeko.
- o) Ordezko gurpila, ibilgailuaren gainontzekolakoa izango da tamaina eta dimensioetan.
- p) Aginte mahaiak gitxienez, abiadura-neugailua, reboluzio-neurgailua, tenperatura-neurgailua eta erregai-neurgailua izango dauz.
- q) Kanpoaldetik, alboetako moldurak izan beharko dauz eta iluminazioa maletategian.
- r) Atzerako ispilu elektrikoak.
- s) Norabideko zutabea altueran eta sakoneran erregulagarria izango da.

2.5.-IBILGAILUETAN INSTALATU BEHARREKO EKIPAMENDU POLIZIALA.

- a) Udaltzaigoaren argiak (puente luces).
- b) Udaltzainen komunikazio irratia eta horren funtzionamendurako beharrezkoak. (Irratia Bermeoko Udaltzaingoak hornituko dau.)
- c) Polizia linterna konpletu bi (konoagaz eta kargatzeko euskarriagaz)

2.6.-ORDEZKOAK:

Ibilgailuagaz batera, lanpara eta fusibleen ordezeko jokoak entregatuko da, bi hiruki eta txaleko bat, islatzaileak eta homologatuak.

2.7.-EKIPAMENDU GEHIGARRIA

Bermeoko Udaltzaingoak gehigarri barriak edota ekipamendu barria, instalatu ahal izango dauz esleipenduari horren barri aurretiz emonaz, Bermeoko udalaren kontuta izango diranak, bai instalazioan, mantenimenduan eta konponketan ere.

3.- RENTING-AREN BALDINTZAK

Alokatze edo renting-ak ondorengo konzeptuak barne hartuko dauz:

3.1.- Bilbon matrikulatutako ibilgailua, kontratuaren iraupen epe osoan, egoera ezin hobean izan beharko diralarik, bai funtzionamendu edo tekniko aldetik, baita adminitratibo aldetik ere, zirkulatzeko egoeran legeak xedatutakoak betez. **Ibilgailuak 60.000 km urtero egitea aurrikusten da.**

3.2.- Ibilgailuaren mantenimendu integrala, marka bereko tailer edo kontzesionario ofiziallean egingo da. **Horretarako eta ezinbesteko baldintza legez, Bermeoko Udalerrian kokatutakoen artean izendatuko dau esleipendunak.** Mantenimenduek zera jasoko dabe:

- Aldizkako ikuskapen edo rebisio guztiak, ibilgailuaren mantenimendu liburuak xedatutakoa, bai ordezeko piezak eta likiduak, bai eskuko obra, fabrikatzailearen bermepean egon edo ez egon arren. **Gehienez 48 ordutan.**

- Matxura guztien konponketa, ibilgailuaren erabilerarengaitiko higadurak eraginak, baita gehigarri polizialean ere. **Gehienez hiru lanegunetan.**

- Txapa eta markoketako konponketa garrantzitsuetan, **gehienez 5 lanegunetan, istripuaren peritaziotik zenbatuz.**

- Gurpilen aldaketa, "Dirección General de Trafico"-k xedatutako arauen arabera, edo segurtasunagaitik egoerak horrela eskatzen badau, eta edozein kasutan 60.000 kilometroro.

- Konponketa, mantenimendu edota gurpil aldaketa lanak burutzeagaitik, ibilgailua zerbitzutik kanpoko egoerean finkatutako epeak gainditzen dauzanean, ordezeko ibilgailua hornituko da.

Honen arabera, erregaia eta garbiketa gastuak Udalaren kontura izango dira.

3.3.- Ibilgailuaren aseguru Arrisku Orotarako motakoa izango da eta gitxienez ondorengoak bermatuko dauz:

- Derrigorrezko erantzukizun zibila.
- Mugagabeko Borondatezko erantzukizun zibila.
- Ibilgailuak jasandako kalte propioak eta kontratuko gehigarri guztiak barne.
- Talka egitearen kalteak.
- Bidaiariak, defentsa eta kalteen erreklamazioak.
- Ibilgailuaren lapurreta.
- Kristalen hausturak.

Aseguru polizak, gidariari jagokonez, gitxienez ondorengoak bermatuko dauz:

Heriotza:	18.030€
Ezintasun Iraunkorra(I.P)	18.030€
Aldi baterako Lanerako ezintasuna (I.L.T)	27,05€/egun.

I.L.T.-a istripua gertatzen dan lehen egunetik hasita ordainduko da, gehienez hamabi (12) hilabeteetan.

Esleipendunak ezin izango dau polizaren baldintzak aldatu alokatzailearen kaltetan. Edozein aldaketa aseguru polizan, Administrazioaren onetsia izan beharko dau aurretiz.

Esleipendunak aseguru konpainiaren barri emon beharko dau administrazioari, polizaren agiriak eta garantiak azalduz. "Autoseguro" modalitatea debekatuta dago

3.4.- 24 orduko asistentzia errepidean, nazio mailan.

3.5.- Ibilgailuari ezarri ahal jakozan zigorrei buruz, zera aplikatuko jako:

- Ibilgailuaren egoeraren ondorioz datozen zigorrak, bere agiri administratiboetatik, eta baita indarreko legeak derrigortzen dauzan errebisio faltagaitik ere, esleipendunaren kontura izango dira.
- Ibilgailuaren gidatzearen ondorioz datozen zigorrak, administrazio honen kontura izango dira.

3.6.- Alokatzailak ondorengo betebeharrak bere kargu hartzen dauz:

- Ibilgailuaren mantenimendu liburuko errebisioak eskatzea.
- Edozein matxuraren barri emotea.
- Ibilgailua tailerrera erotea, ibilgailuak berak ahalbidetzen dauanean.
- Eskatzen dan informazio guztia emotea, urtero egindako kilometroez, eta bestelakoak ere kontratu hau hoberen burutuz.
- Eskatzen danean, edozein prozeduretan aurkeztea, salaketa-egile, auzi-jartzaile, salaketa-hartzaile, demandatu, edo lekuko gisa, kasuan kasu.

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratuaren iraupena LAU (4) urtekoa da, ibilgailua entregatzen dan egunetik hasita, harrera aktan agertu legez.

Erabateko hondameneko kasuan, kontratu hau amaitutzat joko da, erabilitako kilometroen eta epearen arabera kitapena eginaz, eta aurrerantzean ez dira fakturatuko gainontzeko kuotak.

5.- LIZITAZIOKO OINARRIZKO AURREKONTUA.

Kontratu honen aurrekontua, berrogeita hamabi mila eta zortzi ehun eurotako da (52.800,00€)

2009 – 6.600€

2010 –13.200€

2011 –13.200€

2012 –13.200€

2013 – 6.600€

Aurrekontu honetan BEZ zerga barneratu da.

6.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO EPEA.

Alokairu kontratu honen iraupena berrogeita zortzi (48) hilabetekoa izango da, ibilgailua hartzen dan egunetik hasita.

7.- ENTREGATZEKO TOKIA ETA EPEA

Partehatzaileek, ibilgailua entregatzeko epea azaldu beharko dabe eskaintzean, hirurogei (60) eguneko gehienezko epeagaz, kontratua sinatzen dan egunetik hasita. Ibilgailua guztiz legalizatuta eta matrikulatuta entregatu beharko da.

Esleipendunak behartuta dago Bermeoko Udaleko Udaltzaingoaren instalazioetan entregatzeko ibilgailua, hau da, Intxausti kalea 2 48370 BERMEO

8.- PREZIOEN BERRAZTERKETA.

Urriaren 30eko Sektore Publikoko kontratuen 30/2007 Legearen 77.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prezioak ezin izango dira berraztertu, ondorengo kasuan izan ezik: tributu arautegiaren aldaketaren ondorioz kostuen igoera suposatzen dauanean edo bestelako izaerakoak ibilgailuetan aldaketei jagokenak edota ekipamendu gehigarrian, kontrataren prezioan eragina izanik.

Edozein kasutan, baiezeko erabakia behar izango da Administrazio kontratatzailearen aldetik, eta data horretatik aurrera izango dau eragina prezioen errebisioak.

9.- ORDAINKETAK.

Ordainketak hilabete bakoitzeko amaieran egingo dira, domiziliazio bankario bidez, kontratuan jasotako kontu korrontean.

Udal honek daukazan kontu korronteetarikoa batetan domiziliatuko dira kuota guztiak. Kontu korrontea zehaztea Udal Diruzaintzari jagoko eskusiboki.

Kontratua amaitzen dan momentuan, ibilgailuak egindako kilometro kopurua aztertuko da, kontratatutako kilometro kopuruagaz alderatuz.

Gehiegizko kilometroak badagoz, Bermeoko Udalak, kilometroko, bere eskaintzan azaldutako dirukopurua ordainduko deutso esleipendunari. Kontratatutakoak baino kilometro gitxiago badagoz, esleipendunak, kilometroko, dirukopuru bardina ordainduko deutso Bermeoko Udalari.

10.- PROPOSAMENEN AZALPENAK

Administrazioak, aurkezten diran proposamen guztien azalpen eta argibideak eskatu ahal izango dabe, ulergarriagoak izan daitezcan.

11.- LEHIAKETA HONEN ERIZPIDE OBJEKTIBOAK BALORATU AHAL IZATEKO, AURKEZTU BEHARREKO AGIRI TEKNIKOAK.

a) Eskaintza ekonomikoa. Ondorengo atalak zehaztuko dira:

- Kontratuaren prezio osoa, BEZ-a bananduta.
- Renting-aren hileroko kuota, BEZ-a bananduta.
- Kilometroko prezioa kontratatutako kopuruaren gaintik egindakoentzat, kontratua amaitzen danean apliatuko dana, eta kontratatutako kopuruaren azpitik egindako kilometroko prezioa izango dana ere.
- Kontratistak aukeratutako tailerraren izena, helbide eta telefonoa, mantenimenduak, matxura konponketak eta gurpil aldaketa-konponketak bideratzeko.

b) Eskaintako ibilgailuaren azpimodeluko ezaugarri teknikoen memoria, baldintza plegu tekniko honetako 2.3 atalean zehaztutako ezaugarriekaz konparatu eta baloratu ahal izateko. Horrez gain, partehartzaileak nahi dauzan agiri gehigarriak, adibidez, foiletuak, fitxa teknikoak, argazkiak etabar, eskaintako ibilgailua zalantzarik gabe identifikatzen laguntzen dabenak. Espresuki agertuko dira eskaintako hobekuntzak, aipatutako atalean zehaztutakoekaz erlazionatuz.

c) Plegu honetako 2.4 2.5 eta 2.6 ataletan esijitutako baldintzen hobekuntzak azaltzen dauzan agiria, baita arrisku anitzeko aseguruaren ezaugarrietan hobekuntza (3.3 eta jarraiko atalak). Azken hau dala eta, aseguruaren arrisku-estaldura agiria aurkeztuko da Plegu honetako 3.3. atalean zehaztutako ezaugarriak betetzen dirala kreditatzeko. Espresuki agertuko dira eskaintako hobekuntzak, aipatutako atalean zehaztutakoekaz erlazionatuz.

12.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

12.1.- PREZIOA

0 tik 50 puntutara.

12.2.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

0 tik 30 puntutara.

12.3.- HOBOKUNTZAK

0 tik 20 puntutara.

Bermeon, 2009ko ekainaren 26an.

Espediente mota: Administrazio kontratazioa.

Kontratua: UDALTZAINGOAREN IBILGAILUA RENTING BIDEZ hornitzeko kontratua, prozedura negoziatua publizidade barik.

Espedientea: 2009-56

**HORNIDURA KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA
ZEHATZEN LABURPEN ORRIA
PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO ESLEIPENA**

A) KONTRATUAREN XEDEA:

Eskaintzen den kontratuaren helburua da, Udaltzaingoak ibilgailu polizial modura erabiltzeko, renting kontratu bat sinatzea. Hornidura sistema honek suposatzen dau, ibilgailuaren jabetza eta horregaz batera mantenimendu integralaren lanak, konponketa lanak eta gurpil aldaketa lanak suposatzen dauzan gastu guztiak, kontratistaren kontura izango dirala, ibilgailua denbora guztian erabiltzeko egoeran mantentzeko helburuagaz.

Kontratuaren funtzioa, berrogeita zortzi (48) hilabeteetan zehar ibilgailu bat hornitzea Udaltzaingoa zerbitzuak erabiltzeko. 240.000 km kontratatuko dira. Ibilgailuaren mantenimendu osoa eta matxurak konpontzeko lanak, gurpil aldaketa-konponketak barne, kontratistak aukeratutako Bermeoko lurraldean kokatzen dan tailerren batetan bideratu beharko dira derrigorrez.

Ibilgailuaren aseguruak arrisku guztietarako motakoa izango da, kontratua irauten dauan epe osoan, beti ere kontutan izanda ibilgailuari emongo jako erabilera.

B) KONTRATU EPEAK; KONTRATU LUZAPENAK; KONTRATAZIO ORGANOA.

Kontratu epea: berrogeita zortzi (48) hilabete (lau urte).

Kontratu luzapenak: ez da kontratu luzapenik izango.

Kontratazio organoa. Bermeoko Udaleko Osoko Bilkura.

C) KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa 45.517,24€ eurokoa da, BEZ barik. BEZari dagokion zenbatekoa 7.282,76€eurokoa da.

Prezio honetan, aseguru, porteak eta aplikagarri diran zerga, tasa, kanon edo bestelako gastu guztiak barne aurrikusi dira.

Eskaintzaileek diru kopuru hori hobetu daik. Banatuta adierazi beharko dau zein dan prezioa (BEZ barik) eta zein BEZari dagokion diru zenbatekoa.

D) NOLA ORDAINDU



Ordainketak hilero burutuko dira, banketxeko domiziliazio bidez, Udal Diruzaintzak zehaztutako udal kontu korrontean kargatuz.

E) PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Urriaren 30eko Sektore Publikoko kontratuen 30/2007 Legearen 77.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prezioak ezin izango dira berraztertu, ondorengo kasuan izan ezik: tributu arautegiaren aldaketaren ondorioz kostuen igoera suposatzen dauanean edo bestelako izaerakoak ibilgailuetan aldaketei jagokenak edota ekipamendu gehigarrian, kontrataren prezioan eragina izanik.

Edozein kasutan, baiezko erabakia behar izango da Administrazio kontratatzailearen aldetik, eta data horretatik aurrera izango dau eragina prezioen errebisioak.

F) BERMEAK.

- Behin behineko bermea: ez da exijitzen.
- Behin betiko bermea: Esleipen prezioaren %5a, BEZ barik.

G) ESLEIPEN IRIZPIDEAK.

1) HORNIDURAREN PREZIOA: 50 puntu.

Eskeinitako prezioaren murrizketa, prezio tipoaren arabera. Azpifaktorea: lehentasuna, prezio baxuenaren eta ondorengoaren arabera, ondorengo formularen arabera, proportzionalki gehienezko murrizketara.

[Ob/OI] x 50

Ob: eskaintza baxuena.

OI: baloratzen ari dan eskaintza.

50: gehienezko puntuaketa.

2) EZAUGARRI TEKNIKOEN HOBEKUNTZAK 0 tik 30 puntutara.

Arlo honetan, baldintza plegu teknikoko 2.3 atalean zehaztutako ezaugarriekaz konparatu eta baloratuko da.

3) BESTELAKO HOBEKUNTZAK 0 tik 20 puntutara.



Atal honetan, Plegu teknikoko 2.4 2.5 eta 2.6 ataletan esijitutako baldintzen hobekuntzak baloratuko dira, baita arrisku anitzeko aseguruaren ezaugarrietan hobekuntza (3.3 eta jarraiko atalak).

MINUSBALIATUEN PLANTILAK

Minusbaliatuen plantilak EZ dira kontutan izango eskaintzen balorazio gisa.

H) BERME EPEA.

Berme epea, makinena berme epea izango da, hau da, LAU (4) urte.

I) KONTRATUA EZ BETETZEAREN ZIGORRA.

Baldintza Pleguetako 14. Atalean ezarritakoaz gain, eta 30/2007 legearen 196. Artikuluari jarraituz, zigorrak proportzionaltasunez aplikatuko dira, kontratua EZ betetzeagaitiko zioaren larritasunagaz lotuta.

Ibilgailuaren mantenimendua, konponketa lanak eta gurpil aldaketak-konponketak Bermeoko Udaleko lurraldeko tailerren batetan egiteko ezinbesteko baldintza ezarri da. Kontratuaren iraupen epean hori ez betetzeak, bermearen exekuzioa ekarriko dau, 88. Artikuluak xedatutakoa jarraituz.

J) KONTRATISTAREN EZAUGARRI BEREZIAK. GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA, ETA KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.

Udalak gonbidatutako enpresek kaudimena eta gaitasuna kreditatuta daukie.

K) ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA, EPEAK ETA ORDUTEGIA.

LEKUA: Administrazio honetako ERREGISTRO OROKORRA (BERH@Z - Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua, Ertzilla kalea 8, 48370 BERMEO –BIZKAIA-).

ORDUAK: 8:30etatik – 14:30etara goizetan, 16:30etik 19:00etara arratsaldeetan martitzen eta eguenatan, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara.

EPEA: **15 egun naturalak**. Kasu guztietan gonbidapena publikatzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa, Baldintza Plegu Administratibo Partikularretako 19.atalean zehaztutakoa da. Fotokopia arruntak aurkeztu ahal izango da. Behin behineko esleipendunari bakarrik exijituko jako agiriaren konpultsak aurkeztea.

Udalaren eskuetan dagozan agiriak ez dira exijituko.



L) BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA.

Bi hilabeteko epean gehienez, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Lizitatzailerik aldaketan berri emongo jakie.

M) DOKUMENTAZIOA JASOTZEKO TOKIA, EPEAK ETA ORDUTEGIA.

LEKUA: Administrazio honetako ERREGISTRO OROKORRA (BERH@Z - Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua, Ertzilla kalea 8, 48370 BERMEO –BIZKAIA-).

ORDUAK: 8:30etatik – 14:30etara goizetan, martitzen eta eguenatan 16:30etik 19:00etara arratsaldeetan, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara.

EPEA: eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte.

INFORMAZIOA eta DOKUMENTAZIOA JASOTZEKO WEB GUNEA:

http://www.bermeokoudala.net/udalaren_kontratuak.html?&L=1 (euskeraz)

http://www.bermeokoudala.net/udalaren_kontratuak.html?&L=2 (gaztelaniaz)

N) ARGITALPEN GASTUAK

Publizidade bako prozedura izanik , ez da publizidade gasturik izango.

O) ALDAERAK ONARTZEA.

Ez da aldaerarik onartuko.

P) AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA.

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurrekusi da aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura. Bestaldetik, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan, behar adina kreditu jarriko dauz dagokion organoak.

2009 – 6.600€

2010 –13.200€

2011 –13.200€

2012 –13.200€

2013 – 6.600€

Q) TRAMITAZIOA

Arrunta.

R) BETETEKO/ENTREGATZEKO TOKIA ETA EPEA.

Lizitatzailerik ibilgailua entregatzeko epea zehaztu beharko dabe, gehienez hirurogei (60) egunekoa izanik, kontratua sinatzen dan egunetik kontatzen hasita. Ibilgailua legezkatuta, matrikulatuta, eta baldintza plegu teknikoetan zehaztutako ekipamenduagaz aurkeztuko da.

Esleipendunak, Bermeoko Udaltzaingoaren egoitzan entregatuko dau ibilgailua, hau da, Intxausti kalea 2an, 48370 BERMEO.



S) OHARRAK

Baldintza Plegu teknikoan zehaztutakoak betetzen dirala konprobatzeko, ondorengo agiriak aurkeztuko dira **B GUTUNAZALEAN**:

a) Eskaintza ekonomikoa. Ondorengo atalak zehaztuko dira:

- Kontratuaren prezio osoa, BEZ-a bananduta.
- Renting-aren hileroko kuota, BEZ-a bananduta.
- Kilometroko prezioa kontratatutako kopuruaren gaintik egindakoentzat, kontratua amaitzen danean apliatuko dana, eta kontratatutako kopuruaren azpitik egindako kilometroko prezioa izango dana ere.
- Kontratatutako aukeraturako tailerraren izena, helbide eta telefonoa, mantenimenduak, matxura konponketak eta gurgil aldaketa-konponketak bideratzeko.

b) Eskaintako ibilgailuaren azpimodeluko ezaugarri teknikoen memoria, baldintza plegu tekniko honetako 2.3 atalean zehaztutako ezaugarriekaz konparatu eta baloratu ahal izateko. Horrez gain, partehartzaileak nahi dauzan agiri gehigarriak, adibidez, foiletuak, fitxa teknikoak, argazkiak etabar, eskaintako ibilgailua zalantzarik gabe identifikatzen laguntzen dabenak. Espresuki agertuko dira eskaintako hobekuntzak, aipaturako atalean zehaztutakoekaz erlazionatuz.

c) Plegu honetako 2.4 2.5 eta 2.6 ataletan esijitutako baldintzen hobekuntzak azaltzen dauzan agiria, baita arrisku anitzeko aseguruaren ezaugarrietan hobekuntza (3.3 eta jarraiko atalak). Azken hau dala eta, aseguruaren arrisku-estaldura agiria aurkeztuko da Plegu honetako 3.3. atalean zehaztutako ezaugarriak betetzen dirala kreditatzeko. Espresuki agertuko dira eskaintako hobekuntzak, aipaturako atalean zehaztutakoekaz erlazionatuz.

Eskaturako agiriak aurkezten ez badira, kreditatu barik geratzen diran ataletan ez da ezelako puntuaketerik emongo.

Konfidentzialtasun izaera: horrela eristen bajako, enpresek, sekretupeko izaeradun arlo tekniko edota komertzialei lotuta egoteagaitik, aurkezten daben eskaintzaren edo informazioen konfidentzialtasun izaeradunak dirala zehaztu ahal izango dau, hori arrazoituz. Eskaintza ekonomikoak ez dau izaera hori izango inolaz ere.

T) NEGOZIAZIOA.

Baldintza Administratibo Partikularretako 20.atalean zehaztutako atal guztiak negoziatu daitezke, hau izan ezik:

Prezioen berrazterketa: ezin da negoziatu.

U) HIZKUNTZA IRIZPIDEAK



Kontratataren egoitza Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean kokatuta badago, udalari eta herritarrei jagokonean, aurrez-aurreko hartu emon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz egin beharko dauz. Udalak euskerea baino ez dau erabiliko bere hartu-emonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

V) SAIL SUSTATZAILEA

Udaltzaingoa. Buruzagitza

Bermeon, 2009ko ekainaren 26ean.
Kontratazio Organoa.



Espediente mota: Administrazio kontratazioa.

Kontratua: Hornidura kontratua, prozedura negoziatu bidezkoa, publizidade barik.

HORNIDURA KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA
ZEHATZEN ORRIAK
PROZEDURA NEGOZIATUA PUBLIZIDADE BARIK

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea laburpen orriaren **A) atalean agertzen dana.**

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedienteaz azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritik egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Hornidura egiteko epea **laburpen orriaren B) ATALEAN** agertzen dana.

Hornidurak epe horretan egiten ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

Hornidura kontratuaren luzapena edo luzapenak (lege berriak ez du luzapenei dagokienez mugarik ezartzen) kontratazio organoak erabakiko du/ditu eta nahitaezkoa izango da esleipendunarentzat, beti ere, kontratuan kontrakoa jasotzen ez bada.

*Kontratuaren iraupena (luzapenak barne) 4 urtetik gorakoa dan kasuetarako, kontratazio organoa Osoko Bilkura izango da.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa **laburpen orriko C) ATALEAN** agertzen dana izango da.



*Kontratuaren prezioa (luzapenen prezioa barne) Udalaren aurrekontuaren errekurtso arrunten %10a baino handiagoa bada, kontratazio organoa Osoko Bilkura izango da.

4. FINANTZIAZINOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura.

Espedientean diru kopuru horreek noiz ordainduko diran azaltzen da, baita ekarpenak oso-osorik erabil daitezkezala ere.

5. NOLA ORDAINDU

Ordainketa modua **laburpen orriko D) ATALEAN** agertutakoa izango da.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Prezioen berraztertzea **laburpen orriko E) ATALEAN** agertutakoa izango da.

Prezioen berraztertzea onartzen danean, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 78 – 82. artikuluen arabera egingo da. Aplikatuko den berraztertze-formula zehaztuko da.

7. BERMEAK

Bermeak ezartzen diranean, **laburpen orriko F) ATALEAN** agertutakoan izango dira.

Bermeak ezartzen diran kasuetan ondorengoak izango dira kontutan:

Behin betiko bermea eskatzen danean, esleipendunari esleipena jakinarazten zaionetik 15 egun balioduneko epean, behin-betiko esleipendunak behin betiko bermea sartu beharko du Udaleko Diruzaintzan, hau da, esleipen prezioaren %5 BEZ barik.

Kontratuaren epea amaitzen denean, berme hori esleipendunari itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude.

Behin-behineko bermea eskatzen bada, hori lizitazio prezioaren %3 arteko



zenbatekoa (BEZ kanpo) izan daiteke.

Bermea, kontratuaren behin-betiko esleipena egin ondoren ofizioz itzuliko zaie lizitatzaileei.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Hornidurak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Hornidurak egiten jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harreman, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

10. - ESLEPENERAKO IRIZPIDEAK.

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 134. Artikuluak xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira, baita hartzen dan erabakiaren hastapena ere.

Esleipen irizpideak zeintzuk diran, **laburpen orriko G) ATALEAN** agertutakoak izango dira.



Kontratu honen esleipenerako, eta 30/2007 Legearen seigarren xedapen gehigarrian arautzen denez, lehentasuna ezartzen da, minusbaliadun langileen kopurua %2a baino gitxiagokoa EZ diran plantiladun lizitatzaillearen alde, horrela frogatzen dabenean gaitastun teknikoa kreditatzerakoan, beti ere, honeek aurkezten dabenean proposamenak, eskaintza hoberenaren terminoak bardintzen badabenez, esleipenaren oinarri diran irizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz.

Bestalde kontratazio organoak aurreko irizpidea kontratua esleitzeko irizpidetzat hartu dezake (“condición especial de ejecución del contrato”) eta beraz, derrigorrezkoa izatea. 102. Artikuluan arautzen da. Aukera hau, **laburpen orriko G) ATALEAN** agertutakoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epearen azken egunean, bere plantilan daukien minusbaliadun langile kopurua izango da kontutan, lehentasun hau aplikatzerakoan, eta VII. Eranskinaren aitortpenaren bitartez kreditatuko da. Lizitatzailleak aipatutako aitortpen agiria edota eskatutako datu guztiak aurkezten ez badau, ez jako lehentasun hau aplikatuko, %2ko minusbaliadun langile kopurura heltzen EZ dala ulertuko dalako efektu guztietarako, eta ezin izango dau inolaz ere akats hori zuzendu.

Aldi baterako enpresa elkarteetan edota hainbat lizitatzaille aldi batera partehartzen badabe, lehentasun hau aplikagarri izango da, langile minusbaliatuen kopuruak aipatutako indizea gainditzen dabenean plantilak daukiela ulertzen danean, kontratuan lizitatzaille bakoitzaren parte hartzearen proportzioan.

11. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.

Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

12. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, behar berriak edo ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 272. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.



13. BERME-EPEA

Berme-epe bat aurreikusiko balitz **laburpen orriko H) ATALEAN** jasoko litzateke, eta epe horretan akatsak egongo balira, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak 274. Artikuluan xedatutakoa aplikatuko litzateke.

14. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko (196. Artikulua).

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezi honeen **laburpen orriko I) ATALEAN** aipatzen diren zigorrak ezartzea (196.7. Artikulua).

15. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOTIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 206 eta 275. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Kontratua amaitzearen ondorioak 276. Artikuluan aurreikusten direnak izango dira.



16. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratua sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

17. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena negoziazio bidez egingo da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 160 eta jarraiko artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, testu horren 157.f) artikuluan jasotako kasua baita.

18. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Laburpen orriko J) ATALEAN zehaztuko dira arlo honetarako eskatutako baldintzak.

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen tekniko eta ekonomiko frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 64 eta 66 artikuluetan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jardura nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.



19. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, **laburpen orriko K) ATALEAN** agertutako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da.

A GUTUNAZALA- DOKUMENTAZIOA

Proposamen horiek adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, bi kartazalen barruan itxita. "A" kartazalean honako hau idatziko da:

"A KARTAZALA:HORNIDURAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Horretan ondoko agiriak sartuko dira:

*30/2007 legearen 72. artikuluen arabera eta 73. Artikuluan xedatutakoaren kalte barik, Estatuko edo Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizial batetan inskribatuta badago, behean aipatutako dokumentazioaren ordezkari haur aurkeztu beharko da:

- Estatuko edo Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.

* Estatuko edo Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta EZ badago ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, behin-betikoko esleipena egin orduko, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatuta behar ditu.

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea persona juridikoa izanez gero:

- Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
- Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
- Arduradunaren NAN.
- Kontratatzeke debekurik ez duela aitortzea (**II Eranskina**).
- Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.



- Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

- c) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala.
* Enpresak sailkatze betebeharra badauka, sailkatzearen ziurtagiriak kaudimena ordezkatu du.

- d) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena.
*Enpresak sailkatze betebeharra badauka, sailkatzearen ziurtagiriak kaudimena ordezkatu du.

- e) Eskatzen bada, indarreko empresa-sailkapenaren ziurtagiria.

- f) Udalaren diruzaintzan behin-behineko bermea eman izanaren frogagiria.

- g) Beste edozein agiri, **baldintza pleguko laburpen orriko S) atalean** agertu bezala.

B GUTUNAZALA- DOKUMENTAZIOA

“B” kartazalean ondokoa idatziko da : “B KARTAZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA. ONDORENGO HORNIDURA KONTRATUARENA...”. Horretan ondoko agiriak sartuko dira:

Proposamen bakarra, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren **I.Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.

Laburpen orriko S) atalean zehazten diran agiriak.

Ez dira onartuko proposamen hauek:

- Kontraesanak, ez aipatzea, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.

- Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.



- Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
 - Proposamenaren zenbatekoan errore argia dutenak.
 - Pleguaren **I. Eranskin** gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
 - Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.
- a) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.
- b) Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorrak izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.
- c) Dokumentazio Teknikoa: Lizitzaileek orrialdeak zenbatuta dituen dosierrak aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko baloratuko diren irizpideei buruzko alderdi oro.
- d) Baldintza plegu honen laburpen orrian agertutako beste edozein agiri aurkeztuko da gutunazal honetan.

20. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (144.1. Art), Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A"kartazala) sailkatuko dau, eta, dokumentazio horretan akats materialak somatuz gero, hiru laneguneko epea emango deustso lehiatzaileari akatsa zuzen daian.

Aurkeztutako eskaintzak ("B"kartazala) Erosketa Sailak erabakitako egunean irekiko dira. Telefonoz edo faxez emongo jake horren emaitzaren barri lehiatzaileei.

NEGOZIAZIOA

Kontratua burutzeko negoziazio ronda irekiko da enpresekin.

- a) Ondoren agertzen diran atal guztiak negoziatu ahal izango dira, laburpen orriko T) atalean negoziaketatik kanpo uzten ez badau:



- Eskaintza ekonomikoa.
- Eskaintza teknikoa.
- Prezioen berrazterketa, indarreko legediak xedatutakoa kontutan izanik.
- Exekuzio epeak.
- Kontratatari ordainketen epeak.
- Berme epea, legeak xedatutako mugak errespetatuz.
- Hala bajagoko, laburpen orriko T) atalean zehaztutako bestelakoak.

b) Ezin izango dira negoziatu ondoren zehazten diran atalak:

- Kontratua formalizatzeko betebeharrak.
- Kontratuaren formalizazioa.
- Kontura egindako ordainketak.
- Kontratataren betebeharrak.
- Kontratuaren zuzendaritza.
- Kontratuaren Zesioa eta Azpikontratazioa.
- Kontratuaren aldaketak.
- Kitapena.
- Bermeen itzulketa.
- Kontratua ez betetzea.
- Epeak ez betetzea.

Negoziaketak faxez, telefonoz, idatziz, bertaraturaz edo posta elektronikoz bidez burutu ahal izango dira, expedientean horren barri agertuz, interesatu guztiak tratatu bardina jasotzen dabela bermatuz, eta konkretuki, lizitatzailleen artean diskriminaziorik sortu dezakeen informazioa emotea ekidituz, batzuek besteen aurrean abantailarik ez izateko.

Jagokan Zerbitzu edo Organuak, negoziazioa amaitutzat emoten dauanean, hiru (3) eguneko gehineko epea emongo jakie enpresei, hasierako eskaintzak negoziatioagaitik izandako aldaketak aurkeztu daien, idatziz eta enpresaren ordezkioak sinatuta.

Jagokan Zerbitzu edo Organuak, burututako negoziaketei buruz eta horren emaitzei buruzko txostena emongo dau.

Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Erosketa sailak esleipena egin behar dauan Kontratazino Organoari pasako deutso esleipen proposamena.

21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Behin-behineko esleipena, **laburpen orriko L) ATALEAN** agertutako epean egingo da, hilabeteko epean gehienez, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Behin-behineko erabakia lizitatzailleei jakinaraziko zaie . Horrez gain, web orrialdean eta horrela bajagoko, BAOen edo legeak exijitutako aldizkari ofizialetan publikatuko da.



Behin-behineko esleipenaren erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita 15 egun balioduneko epean, behin-behineko esleipenerako proposatuta dagoen lehiatzaileak honako hauek egin beharko ditu:

- a) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.
- b) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldikari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- c) Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta zuinketa-akta izenpetzeko.
- d) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Kontratua 10 egun balioduneko epean formalizatuko da, behin-betiko esleipena jakinarazten den eguneko biharamunetik zenbatzen hasita.

Aurreko epea igarota, behin-betiko esleipena egingo da, hori web orrialdean publikatuko delarik. Kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, behin-betiko esleipena BAOen ere publikatu beharko litzateke.

Kontratuaren behin betiko esleipena behin-behineko esleipendunari egitea ez denean bidezkoa, ez dituelako horretarako beharrezko baldintzak betetzen, beste lehiaketa bat egin aurretik, administrazioak, behin-behineko beste esleipen bat egin ahal izango du hurrengo lehiatzailearen edo lehiatzaileen alde, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera, betiere hori posible bada eta esleipendun berriak adostasuna agertu badu. Kasu horretan, esleipendun horri hamar laneguneko epea emango zaio aurreko ataleko bigarren paragrafoan adierazitakoa bete dezan.

Prozedura hori erabili ahal izango da erregulazio armonizatuari lotuta ez dauden kontratuen kasuan ere, hasitako kontratu bat betetzen jarraitzea bada kontua eta kontratu hori ebatzitzat adierazia izan bada.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.



Kontratua formalizatzeak sortzen dauzan gastuak eta zergak esleipendunaren kontura izango dira. Horreen barri, **laburpen orriko N) ATALEAN** agertu

Lizitazioa **60.000,00** eurotik gorakoa daukien kontratuetan, esleipendunek, kontratua formalizatu aurretik eta behin betiko bermeagaz batera, publizidade gastuak ordaindu izanaren ordainagiria aurkeztu beharko dabe, aurkezten jaken likidazioaren arabera.

Kontratistari kontratu honen publizidade gastuak kitatuko jakoz, gehienez, Estatuko Aldizkari Ofizialeko iragarki baten kostuagaz. (RD1098/2001 art.67.2.g)

22. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabaki hori kontratua *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, behin-behineko esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiak bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala”.

III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

23. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean ezarritako arauak bete



beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

24. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA

30/2007 Legearen 37. Artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak, harmonizatutako erregulazioaren mende dauden kontratuen esleipen prozeduretan hartzeko, subentzionatutako kontratuak, II. Eranskinen 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 206.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, artikuluko honetan arautzen den kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira. 97. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emango.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira behin-behineko esleipen akordioak, lehiaketa arautzen duten baldintza agiriak eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituztenak, eta aurreko prozeduran hartutako tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientearen egitea dagokion organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango diete interesdunek, zuzen dezaten, eta behin-behineko esleipen ekitaldia errekurrizterakoan interesdunek eragiten dieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsoa beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsuaren xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek eta, edozein kasutan, lehiatzaileek.

Autonomia erkidego bakoitzeko arauak ezartzen dutenaren kalterik gabe (eta edozein kasutan, administrazio bidea agortzen duten erabakiak emango dituen organo batek izan beharko du eskumen hori), errekurtsu berezia ebazteko eskumendunak izango dira: kontratazio organoa administrazio publiko



baten kontratuak badira, edo erakunde kontratatzailea atxikita dagoen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko burua edo haren zaintza daukana, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Azkeneko kasu horretan, erakunde kontratatzailea administrazio batekin baino gehiagorekin lotuta dagoenean, kontrol edo partaidetza nagusia daukanari dagokion organoa izango da eskumenduna.

Kontratu subentzionatuei dagokienez, eskumena izango du subentzioa eman duen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko titularrak, edo subentzioa eman duen erakundea atxikita dagoenekoak, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Sektore publikoko subjektu desberdinetako subentzioak dauden kasuetan, zenbateko handieneko subentzioa kontuan hartuta zehaztuko da eskumena eta, zenbateko berdinetan, lehenengo eman dena kontuan hartuta.

Kontrako berariazko zehaztapenetan izan ezik, kontratazio arloko errekurtsio berezia ebazteko eskumena kontratatzeke eskumenarekin batera eman dela ulertuko da. Hala ere, kalteen ondoriozko kalte-ordainak ezartzeko ahalmena ezin izango da eskuordetu, eta horren gainean, edozein kasutan, organo esku ordetzaileak ebatzi beharko du. Eragin horietarako, kalte-ordain bat onartzea bidezkoztat joz gero, espedientea organo eskuordetzaileari igorriko zaio, eta hark, aurretiaz eta berariaz eskumenak bereganatu beharrik gabe, dagokion errekurtsioaren gainean ebatziko du.

Kontratazio arloan errekurtsio berezia ezartzeko epea hamar lanegunekoa izango da, aurkaratutako ekintza jakinarazten edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera zenbatuta. Errekurritutako ekintza kontratuaren behin-behineko esleipena bada, epea zenbatuko da ekintza hori egunkari ofizial baten edo kontratazio organoaren kontratatzailearen eskakizunetan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, 135.4 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Errekurtsio idazkia kontratazio organoaren erregistroan aurkeztu beharko da, edo errekurtsioaren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Kontratuaren esleipen prozedura 96. artikuluan aurreikusitako premiazko bidetik tramititzen bada, errekurtsioa aurkezteko epea zazpi lanegunekoa izango da, eta akatsak konpontzekoa bi lanegunekoa.

Errekurritutako ekintza behin-behineko esleipena bada, kontratazio espedientearen tramitazioa bertan behera geratuko da errekurtsioa berariaz ebazten den arte, eta, beraz, ezin izango da behin betiko esleipenik egin ez



kontratua egin. Hala ere, errekurtsua enpresaburu batzuek, kopuru mugarik gabe, parte har dezaketen esparru akordio baten behin-behineko esleipen ekintza baten kontra ezarri bada, ebazpena emateko eskumena daukan organoak bertan behera geratzea altxatu ahal izango du errekurtsua aurkeztu denetik bost lanegun igaro eta gero.

Errekurtsu bat aurkezten bada, horren berri emango zaie gainerako interesdunei, eta bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsoen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekurtsuaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die. Edozein kasutan, errekurtsua jarri zenetik hoguei lanegun igaro badira eta ez bada ebazpenaren berri eman, interesdunak ez onartuztat jo ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko eraginetarako, berariazko ebazpena emateko betebeharraren kalterik gabe eta, hala badagokio, berariazko ebazpena ematen den bitartean, 7. atalean ezarritako bertan behera geratzea altxatu gabe.

Errekurtsuaren ebazpenak errekurtsua edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartuztat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebartziko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzaleak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzera eraginaren gainean edo prozedurako arau-haustearen ondorioz kalteak jaso dituzten pertsonen kalte-ordaina ematearen gainean ere.

Errekurtsuaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 135.4 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsuaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.



25. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Bermeon, 2009ko ekainaren 26an.



I ERANSKINA
Proposamen ekonomikoaren eredua

..... Jaun/Andreak,
..... Helbidearekin eta
zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo
Helbidea eta IFZ daukan
izeneko enpresaren ordezt,

AITORTZEN DUT:

I.- **Bermeoko Udaltzaingoak erabiltzeko, RENTING SISTEMAREN BIDEZ, IBILGAILU BATEN HORNIDURA KONTRATAZIOA** xedea daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.

II.- Kontratuaren arautzen dituen Baldintza Administrazioaren eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.

III.- Ordezkatzen dudana enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.

IV.- Aipatutako kontratuaren eskaintza.....(zenbakitan/hitzetan) Eurotan, BEZ kanpo, proposatzen dudala. BEZari dagokion zenbatekoa€koa (zenbakitan/hitzetan) izango dala. Esleipendunari ordaindu beharreko hileroko kuoten kopurua, hemen zehaztutako kopurua 48 hiletan zatituta dagoala, gehi jagokun BEZ-a.

V.- Kontratuaren amaieran kitapena egiteko erabiliko dan KILOMETRO/PREZIOA, kontratatutakoetatik kontsumitu ez danean edota gehiago kontsumitu danean (BEZ barik):.....€

VI.- Mantenimendu eta konponketa lanak, baita gurrpil aldaketa, ondoren zehazten diran Bermeoko tailerretan burutuko dira:
(tailerren izena, helbidea eta telefonoa agertuko da, bai konponketa eta mantenimendu lanetarako, baita gurrpil aldaketarako ere).

.....
.....

VII.- Entrega epea, ondorengoa izango da:egun.

Bermeon, 2009korenan.

Sinatuta:
NAN:



II ERANSKINA Zinpeko Aitorpenaren Eredua

Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin,
..... helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordeiz,

KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. Artikuluak ezartzen dituen debekuetatik bat bera ere ez duela.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2008korenan.

Sinatuta:
NAN:

